

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2325

AGINDUA, 2012ko maiatzaren 16koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, 2012-2013, 2013-2014, 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetarako hezkuntza-itunak sinatzeko eta berritzeko, eta 2012-2013 ikasturterako unitateak zehazteko dei egiten duena.

Hezkuntza-itunei buruzko Araudia onetsi zuen irailaren 8ko 293/1987 Dekretuak bere II. eta VI. kapituluetan hezkuntza-itunak sinatzeko eta berritzeko prozedura ezartzen du.

Hezkuntza-itunen lau ikasturteko iraupena amaitu ondoren, hezkuntza-itunak berritzeko deialdia egin eta datozen lau ikasturteetarako itun berriak sinatu behar dira.

Hori dela eta, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta hartzaileak.

Ikasturte honetan indarraldia amaitzen duten hezkuntza-itunak berritzeko eta 2012-2013, 2013-2014, 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetarako itun berriak sinatzeko deialdia egiten da, eta 2012-2013 ikasturterako itundu beharreko unitateak zehazteko deialdia ere egiten da, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe pribatu baimenduei eta irakaskuntza hauei dagokienez:

- a) Haur Hezkuntza (2. zikloa).
- b) Lehen Hezkuntza.
- c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
- d) Hezkuntza Berezia.
- e) Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak.
- f) Batxilergoa.
- g) Lanbide Heziketako erdi-mailako heziketa-zikloak.
- h) Lanbide Heziketako goi-mailako heziketa-zikloak.

2. artikulua.– Baldintzak.

1.– Planifikatutako unitate guztiak itundu aurretik baimendu beharko dira indarrean den legeriari jarraiki, eta etapa eta ikasturte bakoitzean itundu beharreko unitate kopurua ezingo da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak planifikatutako unitate kopurua baino handiagoa izan.

2.– Itundu beharreko Hasierako Lanbide Prestakuntza Programak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ituna duten ikastetxe pribatuek eman beharko dituzte.

3.– Lanbide Heziketako etapa duen ikastetxe bat ez da itunduko Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordetzak onetsitako plangintzan barne ez dauden prestakuntza-zikloak irakasten baditu.

4.– Ikastetxeek egiaztatu egin beharko dute beren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete dituztela, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 1991ko urriaren 7ko Aginduaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren kontura diru-laguntzak eskuratu dituzten onuradunek zerga-betebeharrak bete dituztela egiaztatzeari buruzkoaren arabera.

Laguntzak eskatzen dituzten ikastetxeek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzea automatikoki egiaztatuko du organo kudeatzaileak, behar adina aldiz, horien baimenik behar izan gabe, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena, aplikatuta.

3. artikulua.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Eskabideak Zuzenean Zerbitzuaren Herritarren Arretarako Bulegoan bertaratuta aurkeztuko dira, helbide hauetan: Ramiro de Maeztu 10, Vitoria-Gasteiz; Kale Nagusia 85, Bilbao; Andia 13, Donostia, edo azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein modutan. Postetxearen bulegoetan aurkezten badira, gutun-azal irekian egon beharko dute, postetxeo langileek ziurtatu aurretik data eta zigilua jartzeko. Horrela ez bada, dagokion bulego publikoko sarrera-datan aurkeztu dela joko da.

Eskabideak agindu honen eranskinetan ezarritakoaren arabera bete beharko dira. Eranskin horiek eskuragarri izango dira euskadi.net helbideko egoitza elektronikoko honetan: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>.

2.– Eranskin hauek aurkeztu behar dira:

I.A eranskina: 2012-2013, 2013-2014, 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetarako plangintzaren eskabide-orria.

I.B eranskina: 2012-2013 ikasturtean itundu beharreko unitate kopurua zehazteko eskabidearen inprimakiak.

II. eranskina: 2012-2013, 2013-2014, 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetarako itunaren plangintzaren inprimakiak.

III. eranskina: 2012-2013 ikasturtean itundu beharreko unitate kopurua zehazteko inprimakiak.

3.– Ikastetxeek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute beren eskaerarekin:

Ondorengo inguruabarren bat edo guztiak ziurtatzen dituen memoria:

– Ikastetxeak beteriko benetako eskolatze-premiak.

– Ikastetxe horrek biltzen duen eskola-biztanleriaren baldintza sozioekonomikoak, merezimendu gisa aurkezten bada.

– Hezkuntza-sistamarako interes pedagogikoa duten esperientziak, ikastetxearen programazioan aurreikusita daudenean.

– Hala badagokio, jardute-araubidea kooperatiban.

– Eskaera egiten duen ikastetxearen titularraren ordezkari den pertsonaren egiaztagiria, hala badagokio.

4. artikulua.– Eskaerak aurkezteko epea.

1.– Haur Hezkuntzarako (2. zikloa), Lehen Hezkuntzarako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako, eskabideak aurkezteko epea hamabost egun baliiodunekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

2.– Gainerako etapetarako, eskaerak aurkezteko epea 2012ko irailaren 10ean bukatuko da.

5. artikulua.– Lurraldeetako Balorazio Batzordeak.

Itunduko diren ikastetxeak zehazteko aurkeztutako eskabideen ebaluazioaz eta itundu beharreko unitate kopuruaz lurralde historiko bakoitzean eratuko den batzorde bat arduratuko da eta ondoko kideek osatuko dute:

– Batzordeburua: Administrazio eta Dirubideen zuzendaria.

– Batzordekideak:

* Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren lurraldeko ordezkaria, Administrazio eta Dirubideen zuzendaria ez badago ordezkari dena.

* Ekonomia eta Aurrekontu Kudeaketa Arloko arduraduna lurralde historiko bakoitzean.

* Ikastetxeetako lurralde-arduraduna.

* Lurralde historiko bakoitzeko Hezkuntza Berritzeko Programen arduraduna.

* Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoko lurralde-arduraduna.

* Lurralde historiko bakoitzeko Lanbide Heziketako teknikari bat.

* Lurralde historiko bakoitzeko Hezkuntza Bereziko Programen teknikari bat.

* Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko itun-zerbitzuaren eta ordainketa eskuordetuaren arduraduna.

* Ikastetxe pribatuetako ikasleen guraso-elkarteen federazioen bi ordezkari.

* Irakasleen bi ordezkari, kasuan kasuko lurralde historikoko irakaskuntza pribatuaren alorrean ordezkari handiena duten bi sindikatuak izendatuak.

* Ikastetxe pribatuen titularren elkarteen bi ordezkari.

* Hezkuntza-itunen xede den hezkuntzak hedapenik handiena duen udalerrietako udalen bi ordezkari.

– Idazkaria: Lurralde historiko bakoitzeko aukera-berdintasunaren arduraduna den Administrazio Kudeaketako teknikaria.

6. artikulua.– Eskabideen ebaluazioa.

1.– Itundu beharreko ikastetxeak zehazteko, Hezkuntzako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan eta irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren, hezkuntza-itunei buruzko Araudia onartzen duenaren 12.etik 15.era eta 75. artikuluetan ezarritako lehentasun-irizpideei lotuko zaie batzordea.

2.– 2012-2013, 2013-2014, 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetarako eskola-unitateak planifikatzeko, ondokoak hartuko dira kontuan: irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren, hezkuntza-itunei buruzko Araudia onartzen duenaren 12. artikulua eta hurrengoak eta 79. eta 80. artikuluetan ezarritako lehentasun-irizpideak, eta premiak hauek kontuan izanda:

a) ikastetxea dagoen eskualdeko eskolatze-premiak eta alde horretan dauden eskaintza publikoa eta itunpeko ikastetxeena.

b) ikastetxeak azken lau ikasturteetan benetan bete dituen eskolatze-premiak.

c) Lanbide Heziketaren kasuan, horretaz guztiaz gain, ekonomia-sektoreen premiak hartuko dira kontuan.

Prestakuntza-zikloen eta hasierako lanbide-gaitasunen programen plangintza ziklo edo profil bakoitzeko lehenengo ikasturteetarako baino ez da egingo.

Hezkuntza Bereziaren kasuan, unitate egonkorak eta Zereginen Ikaskuntzarako Gelak soilik planifikatuko dira.

3.– 2012-2013 ikasturterako unitate kopurua zehazteko, ondokoak hartuko dituzte kontuan batzordeek: irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren, hezkuntza-itunei buruzko Araudia onartzen duenaren 79., 80. eta 81. artikuluetan ezarritako irizpideak, eta agindu honen IV. eranskinean ezarritako irizpideak.

7. artikulua.– Ebazpen-proposamena.

1.– Lurraldeetako Balorazio Batzordeak elkartu eta aurkeztutako eskabideen ebaluazioa egin ondoren, batzordeburuak Balorazio Batzorde Nagusiaren batzordeburuari helaraziko dio behin-behineko proposamena, eta ikastetxeei jakinaraziko zaie, zer unitateri eta mailari dagozkien eta, hala badagokio, ezesteko arrazoia adierazita.

2.– Proposamen horren aurka ikastetxeek, jakinarazten den egunetik hasita hamar egun naturaleko epean, egokiak iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzakete.

3.– Alegazioak aztertzeke, ondoren aipatuko diren kideek osatuko duten Balorazio Batzordea eratuko da:

– Batzordeburua: Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea.

– Batzordekideak:

* Hezkuntza sailburuordea.

* Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordea.

* Lurralde-ordezkarriak.

* Administrazio eta Dirubideen zuzendaria.

– Idazkaria:

Itun-zerbitzuaren eta ordainketa eskuordetuaren arduraduna.

4.– Ikastetxeek aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, Balorazio Batzorde Nagusiak ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari. Proposamen horrek deialdira aurkeztutako ikastetxe guztiak hartuko ditu barnean.

8. artikulua.– Deialdiaren ebazpena.

1.– Deialdia Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak ebatziko du, eta horretarako agindu bat emango du. Aginduan honakoak jasoko dira:

a) Agindu honek ezarri duen aldirako itunpeko ikastetxe pribatuak, ondokoak zehaztuta: etapa, prestakuntza-ziklo eta ikasturte bakoitzeko planifikatutako hezkuntza-unitateen kopurua.

b) 2012-2013 ikasturtean itundu beharreko unitate kopurua, ikastetxe, etapa, heziketa-ziklo, hizkuntza-eredu, aplikatu beharreko modulua (osoa/partziala eta tartea, hala badagokio) eta dirulaguntzaren zenbatekoaren arabera.

c) Ituna zer ikastetxe pribaturi ezetsi zaien eta ezesteko arrazoia.

2.– Deialdi honen ebazpena sei hileko epean egingo da, agindu honen 4. artikuluan eskabideak aurkezteko aipatzen den epea bukatzen denetik hasita; nolahi ere, 2012ko abenduaren 31 baino lehen egingo da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz jakinaraziko da.

3.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren Aginduaren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete ikastetxe interesdunek sailburu horren aurrean, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

9. artikulua.– Itunaren aldaketa planifikatutako hezkuntza-unitateen kopuruari dagokionez.

1.– Planifikatutako hezkuntza-unitate gehiago jartzeari dagokionez ituna aldatzeko, irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren, hezkuntza-itunei buruzko Araudia onartzen duenaren 79. eta 80. artikuluetan ezarritako irizpideak eta 6. artikuluen 2.a atalean adierazitakoak hartuko dira kontuan.

2.– Lanbide Heziketaren kasuan, arrazoi hauengatik eska daiteke plangintza aldatzea:

a) Heziketa-ziklo bat beste baten ordean aldatzean, baldin eta baldintza hauek betetzen badira:

I.– Maila bereko prestakuntza-zikloetan planifikatutako unitate kopurua handitzen ez denean eta,

II.– Lanbide-familia bereko prestakuntza-zikloei eragiten dien aldaketa denean.

Salbuespen gisa, alde batetik «Administrazioa» eta «Merkataritza eta Marketina» lanbide-familien arteko eta, beste alde batetik, «Ekoizpenerako Zerbitzuak eta Mantentzea» lanbide-familiaren eta «Elektrizitatea eta Elektronika» eta «Fabrikazio Mekanikoa» familien arteko aldaketak onartuko dira.

Plangintza-aldi honen hasieran, a) atalean deskribatutako baldintza ez da aplikatuko, eta lanbide-familia eta maila desberdinei eragiten dien aldaketa eska daiteke.

b) Lanbide Heziketako titulu berriak ezartzearen ondorioz, baldin eta plangintza handitzea eragiten ez badute, eta honela:

I.– LOGSEko zikloak ordeztzen dituzten LOE heziketa-zikloak: plangintza automatikoki aldatuko da eta ziklo bat beste batekin ordeztuko da eskabiderik egin gabe.

II.– LOGSEko ziklorik ordeztzen ez duten LOE heziketa-zikloak.

Eskainita dauden lanbide-familietan, planifikatuta dagoen maila eta lanbide-familia bereko beste ziklo baten ordeztzea eska daiteke.

Ezarri ez diren familietan, planifikatuta dagoen maila bereko beste ziklo baten ordeztzea eska daiteke.

III.– Ordezkapenik ez duten LOGSEko heziketa-zikloak eta indargabetu egin direnak: maila bereko LOEko zikloak aldatzea eska daiteke, eta kasu bakoitzean dagoen kasuistikaren arabera aztertuko da.

Nolanahi ere, 2.a), 2.b) II eta 2.b) III ataletan adierazitako plangintzaren aldaketak egiteko, Lanbide Heziketako Zuzendaritzak egindako aldeko txostena beharko da.

3.– Ikastetxe bat lekuz aldatzen denean, planifikazioa mantentzeko, kokapen berrian agindu honetako 6.2 artikulua a) eta c) irizpideak betetzen dituela egiaztatu beharko du.

4.– Ikastetxeek, halaber, planifikatutako unitate kopurua txikitzea eska dezakete, ikastetxearen osaera birdoitzeko.

10. artikulua.– Hurrengo ikasturteetan itundu beharreko unitate kopurua zehaztea.

2013-2014, 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetan itundu beharreko unitate kopurua zehazteko, ondokoak hartuko dira kontuan: irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren, hezkuntza-itunei buruzko Araudia onartzen duenaren 79., 80. eta 81. artikuluetan ezarritako irizpideak eta IV. eranskinean ezarritako ratioak eta irizpideak.

11. artikulua.– Plangintza aldatzeko eta hurrengo ikasturteetarako itundu beharreko unitate kopurua zehazteko eskabideak aurkeztea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian urtero argitaratuko da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren agindu bat; agindu horretan egutegiak eta eskabide-orriak zehaztuko dira. Itundu beharreko unitate kopurua zehazteko eskabidea urte horretan hasten den ikasturterako izango da; plangintza aldatzeko eskabidea hurrengo ikasturterako izango da.

Eskabideak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak horretarako ezartzen duen formatuan tramitatuko dira.

12. artikulua.– Hezkuntza-itunak formalizatzea.

Agindu honen babespean sinatu edo berri diren hezkuntza-itunak irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren, hezkuntza-itunen Araudia onartzen duenaren 29., 30. eta 31. artikuluetan eta agindu honen V. eranskineko administrazio-agirian ezarritako prozeduraren eta epearen arabera formalizatuko dira.

13. artikulua.– Hezkuntza-itunak ordaintzea.

1.– Agindu honen bitartez arautzen diren diru-laguntzen ordainketa aurretiaz egingo da, lau hilero, eta urriaren 15eko 289/1993 Dekretuaren, ordainketa eskuordetua arautzen duenaren arabera, ordainketa mota horrek eragina duen etapetan.

2.– Diru-laguntzak ordaintzeko, ikastetxeek egiaztatu egin beharko dute beren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete dituztela, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 1991ko urriaren 7ko Aginduaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren kontura diru-laguntzak eskuratu dituzten onuradunek zerga-betebeharrak bete dituztela egiaztatzeari buruzkoaren arabera.

3.– Laguntzak eskuratu dituzten ikastetxeek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzea automatikoki egiaztatuko du organo kudeatzaileak, behar adina aldiz, horien baimenik behar izan gabe, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena, aplikatuta.

14. artikulua.– Baldintzak ez betetzea.

Onuradunak diru-laguntzaren baldintzak betetzen ez baditu, itzuli egin beharko ditu jasotako kantitateak eta legez dagozkien interesak, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian sartuz. Hori guztia, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren II. tituluak diru-laguntzak itzultzeko ezarri duen prozedura orokorraren arabera. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutari ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen du, eta horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta betebeharrak ezartzen ditu.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehenengoa.– Ofizioz aldatzea.

Plangintza eta ituna ofizioz aldatzea proposa dezake Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren agindu bidez ebazteko, dagokion espedientea bideratuta, ikasleak eskolatzeko premiak sortzen badira eta aldaketa hori egitea beharrezkoa bada. Espedientean Hezkuntza eta Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntza sailburuordetzen plangintza-txostenak sartuko dira, hala badagokio, eta eraginpeko ikastetxeari entzunaldian entzungo zaio.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Errekurtsoak.

Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta beronen aurka interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dezakete Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren aurrean hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian bi hilabeteko epean, agindua aldizkari ofizial horretan argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Bigarrena.– Indarrean jartzea.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 16a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

2012ko maiatzaren 25a, ostirala

I-A ERANSKINA

_____ jaunak/andreak,
_____ Udalerriko _____ ikastetxeko
titularra/ ordezkarria izanik, 2012-2013 ikasturtetik aurrera hezkuntza kontzertuak hitzartu eta
berritzeko deia egin duen 2012ko _____ aren __ ko aginduaren arabera,

HONAKOA ESKATZEN DU:

- 2012-2013, 2013-2014, 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetako hezkuntza unitateen
planifikazioa, honekin batera doan II eranskinen arabera.

_____, 2012ko _____ aren _____
TITULARRA/ORDEZKARIA

2012ko maiatzaren 25a, ostirala

I-B ERANSKINA

_____ jaunak/andreak,
_____ Udalerriko _____
ikastetxeko titularra/ ordezkaria izanik, 2012-2013 ikasturtetik aurrera hezkuntza
kontzertuak hitzartu eta berritzeko deia egin duen 2012ko _____ aren __ ko
aginduaren arabera,

HONAKOA ESKATZEN DU:

- 2012-2013 ikasturterako hezkuntza-itunak, honekin batera doan III. eranskinen
arabera.

_____, 2012ko _____ aren _____
TITULARRA/ORDEZKARIA

II. ERANSKINA PLANIFIKAZIOA

Ikastaroak: 2012-2013, 2013-2014, 2014-2015 eta 2015-2016.

Irakaskuntzak: Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza, DBH., Hezkuntza Berezia 2 (itxia).

Kod.: ____ **Ikastetxe:** _____ **Herria:** _____

| MAILA | | AULA KOPURUA | | | |
|----------------------------------|---------|--------------|-----------|-----------|-----------|
| | | 2012-2013 | 2013-2014 | 2014-2015 | 2015-2016 |
| HAUR HEZKUNTZA (2. ZIKLOA) | 3 urte | | | | |
| | 4 urte | | | | |
| | 5 urte | | | | |
| | GUZTIRA | | | | |
| LEHEN HEZKUNTZA | 1. | | | | |
| | 2. | | | | |
| | 3. | | | | |
| | 4. | | | | |
| | 5. | | | | |
| | 6. | | | | |
| | GUZTIRA | | | | |
| DBH | 1. | | | | |
| | 2. | | | | |
| | 3. | | | | |
| | 4. | | | | |
| | GUZTIRA | | | | |
| HEZKUNTZA BEREZIA 2 (ITXIA) | | | | | |

_____, 2012ko _____ aren ____
TITULARRA/ORDEZKARIA

2012ko maiatzaren 25a, ostirala

II. ERANSKINA PLANIFIKAZIOA

Ikastaroak: 2012-2013, 2013-2014, 2014-2015 eta 2015-2016.

Irakaskuntzak: Batxilergoak, Lanbide Heziketako Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak, Lanbide Heziketako Goi-Mailako Heziketa-Zikloak, HLPP eta Zereginen Ikaskuntza

Kod.: ____ **Ikastetxe:** _____ **Herria:** _____

| Maila | AULA KOPURUA | | | |
|--|--------------|-----------|-----------|-----------|
| | 2012-2013 | 2013-2014 | 2014-2015 | 2015-2016 |
| - Batxilergoak | | | | |
| - Lanbide Heziketako Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak (1) | | | | |
| - Lanbide Heziketako Goi-Mailako Heziketa-Zikloak (2) | | | | |
| - Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak (3) | | | | |
| - Zereginen Ikaskuntza | | | | |

_____, 2012ko _____aren ____
TITULARRA/ORDEZKARIA

- (1) II. A Eranskina bete behar da.
- (2) II. B Eranskina bete behar da.
- (3) II. C Eranskina bete behar da.

2012ko maiatzaren 25a, ostirala

III. ERANSKINA HITZARMENA

Ikastaroa: 2012-2013

Irakaskuntzak: Haur Hezkuntza (2. Zikloa), Lehen Hezkuntza, DBH, Hezkuntza Berezia 1.

Kod.: ____ Ikastetxe: _____ Herria: _____

| MAILA | | "A" | | "B" | | "D" | |
|----------------------------------|---------|----------|-------|----------|-------|----------|-------|
| | | Ikasleak | Aulak | Ikasleak | Aulak | Ikasleak | Aulak |
| HAUR HEZKUNTZA (2. ZIKLOA) | 3 urte | | | | | | |
| | 4 urte | | | | | | |
| | 5 urte | | | | | | |
| | GUZTIRA | | | | | | |
| LEHEN HEZKUNTZA | 1. | | | | | | |
| | 2. | | | | | | |
| | 3. | | | | | | |
| | 4. | | | | | | |
| | 5. | | | | | | |
| | 6. | | | | | | |
| | GUZTIRA | | | | | | |
| | HB1H | | | | | | |
| DBH | 1. | | | | | | |
| | 2. | | | | | | |
| | 3. | | | | | | |
| | 4. | | | | | | |
| | GUZTIRA | | | | | | |
| | HB1B | | | | | | |

_____, 2012ko _____ aren _____
TITULARRA/ORDEZKARIA

**III. ERANSKINA
HITZARMENA****Ikastaroa:** 2012-2013.**Irakaskuntzak:** Hezkuntza Berezia 2.**Kod.:** ____ **Ikastetxe:** _____ **Herria:** _____

| HB2 | Ikasleak | Aulak |
|---|-----------------|--------------|
| Garapeneko nahaste orokorrak | | |
| Buru- urrituak | | |
| Mugimendu-urritasun Larica, urritasun elkartuak dituztela | | |
| Zentzumen-urrituak | | |

_____, 2012ko _____ aren _____
TITULARRA/ORDEZKARIA

2012ko maiatzaren 25a, ostirala

**III. ERANSKINA
HITZARMENA****Ikastaroa:** 2012-2013.**Irakaskuntzak:** Zereginen Ikaskuntza.**Kod.:** ____ **Ikastetxe:** _____ **Herria:** _____

| MAILA | EREDUA | IKASLEAK | AULAK |
|----------------------|---------------|-----------------|--------------|
| ZEREGINEN IKASKUNTZA | | | |

_____, 2012ko _____aren _____
TITULARRA/ORDEZKARIA

III. ERANSKINA HITZARMENA

Ikastaroa: 2012-2013.

Irakaskuntzak: Batxilergoak.

Kod.: ____ **Ikastetxe:** _____ **Herria:** _____

| BATXILERGOAK | | "A" | | "D" | |
|-----------------------------|-----------|----------|-------|----------|-------|
| | | IKASLEAK | AULAK | IKASLEAK | AULAK |
| GIZA ETA GIZKARTE ZIENTZIAK | 1. | | | | |
| TEKNOLOGIA ETA ZIENTZIAK | 1. | | | | |
| ARTEAK | 1. | | | | |
| GUZTIRA | 1. | | | | |
| GIZA ETA GIZKARTE ZIENTZIAK | 2. | | | | |
| TEKNOLOGIA ETA ZIENTZIAK | 2. | | | | |
| ARTEAK | 2. | | | | |
| GUZTIRA | 2. | | | | |

_____, 2012ko _____ aren _____
TITULARRA/ORDEZKARIA

(*) Diruz lagunduko diren gelak zehaztuko dira ikastaroko ikasle kopuru osoa kontuan hartuz eta espezialitateak kontuan hartu gabe.

IV. ERANSKINA**2012-2013, 2013-2014, 2014-2015 eta 2015-2016 IKASTURTEETARAKO ITUNDU BEHARREKO UNITATEAK ZEHAZTEKO RATIOAK ETA IRIZPIDEAK**

1.- Ikasle/unitate ratioak:

| IRAKASKUNTZA | RATIO MAXIMOA | RATIO MINIMOA |
|----------------------------------|---------------|---------------|
| Haur Hezkuntza (2. zikloa) | 25 | 17 |
| Lehen Hezkuntza | 25 | 17 |
| Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza | 30 | 17 |
| Batxilergoak | 35 | 18 |
| LHko Heziketa Zikloak | 25 | 12 |
| HLPPak | 15 | 10 |

2.- Itundu beharreko unitate kopurua zehazteko, ratio maximoa eta minimoa kontuan izango dira. Hots, ikasle kopurua ratio maximoaz zatitu eta hondarra ratio minimoaren berdina edo handiagoa bada, beste unitate bat itunduko da, ikasturtea eta hizkuntza-eredua beti kontuan izanda.

3.- Batxilergoan ikasturteko ikasle guztiak kontuan hartuta zehaztuko dira itundu beharreko unitateak, modalitateak kontuan izan gabe.

4.- Haur Hezkuntzan (2. zikloa) eta Lehen Hezkuntzan, matrikulatutako ikasle kopuruak itundu beharreko unitate kopurua aurreko ikasturtearekiko txikitzea badakar, etapan itundutako unitate kopurua manten daiteke, 20 ikasle/ikasgelako mantentze-ratioa aplikatuz eta, hala badagokio, dagokion biribiltzea eginez. Gainera, beharrezkoa izango da osatu gabeko talderik ez egotea.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapetan, aplikatu beharreko mantentze-ratioa 20 ikasle/ikasgelako izango da eta, hala badagokio, dagokion biribiltzea egingo da. Gainera, beharrezkoa izango da osatu gabeko talderik ez egotea.

Batxilergoko etapan, aplikatu beharreko mantentze-ratioa 25 ikasle/ikasgelako izango da eta, hala badagokio, dagokion biribiltzea egingo da. Gainera, beharrezkoa izango da osatu gabeko talderik ez egotea.

5.- Heziketa Ziklo edo Hasierako Lanbide Prestakuntza Programa jakin baten lehen ikasturtean matrikulatutako ikasle kopuruak itundu beharreko unitate kopurua aurreko ikasturtearekiko txikitzea badakar, etapan itundutako unitate kopurua manten daiteke, nahiz eta taldeko ikasle kopurua ezarritako ratio minimora ez iritsi, Heziketa Ziklo jakin horren lehen ikasturteetako ikasleen batez bestekoa ratio minimo horretara iristen bada, osatu gabeko talderik ez badago.

6.- Lehen ikasturtetik ituntzen diren Lanbide Heziketako Heziketa Zikloak eta Hasierako Lanbide Prestakuntza Programak itunduta segituko dute horiek amaitu arte.

Aurrekoari kalterik egin gabe, 2. eta 3. ikasturteetan itundu beharreko ikasgela kopurua zehazteko, 2. irizpidean ezarritakoa izango da kontuan.

7.- Era berean, salbuespen gisa, eranskin honetan ezarritakoak baino ratio txikiagoak dituzten unitateak itun daitezke. Kasu horretan, kontuan izango dira ikastetxearen kokapena (landa/hiria), bildutako eskola-biztanleriaren baldintza sozioekonomikoak eta eskualdeko hezkuntza-eskaintza.

8.- Eranskin honen lehenengo puntuari adierazitakoa baino ikasle/unitate kopuru handiagoa duten hezkuntza-unitateak itun daitezke, baimena emana badu, ikasleek beren ikastetxean jarraitzea bermatzeko. Era berean, Lurraldeko Eskolatzeko Batzordeak erabakitako eskolatzeko berriak direnean.

9.- Hezkuntza Berezian itundu beharreko ikasgela kopurua zehazteko, kontuan izango dira Hezkuntza Sailburuordetzaren mendeko Hezkuntza Bereziko zerbitzuek egindako txostenak, eta ez dira bete behar eranskin honetan ezarritako ratioak.

10.- Curriculum anitzeko taldeetan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hezkuntza indartzeko proiektuetan itundu beharreko ikasgela kopurua zehazteko, kontuan izango dira Hezkuntza Sailburuordetzaren ebazpen bidez baimendutako taldeak.

11.- Zereginen Ikaskuntzan itundu beharreko ikasgela kopurua zehazteko, kontuan izango dira arloan eskumena duen Sailburuordetzak egindako txostenak, eta ez dira bete behar eranskin honetan ezarritako ratioak.

V. ERANSKINA**HEZKUNTZA ITUNEN ADMINISTRAZIO AGIRIA**

Batetik:

..... jaun/andreak,
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak, irailaren 8ko 293/1987 Dekretuak, Hezkuntza Itunen Araudia onartzen duenak, xedatutakoarekin bat etorritz.

Bestetik:

..... jaun/andreak,
..... ikastetxearen titularraren legezko
ordezkariak: Ikastetxea hemen dago:
..... kaleko zenbakian; baimena eman dion Agindua hau
da: eta ikastetxearen titularra,

Itun hau izenpetzen dute klausula hauen arabera:

Lehenengoa.- Hezkuntza-itun hau izenpetzen duen ikastetxe honek men egingo die Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoak IV. tituluan ezartzen dituen araei (Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak aldatu zuen hori); bestetik, itunari darizkion betebeharrak hartuko ditu bere gain, lege organiko horretan, Hezkuntza Itunen Arautegia onartzen duen irailaren 8ko 293/1987 Dekretuan eta aplikatzeko diren gainerako arauetan ezarri bezala.

Bigarrena.- Itun hau ikasturte hauetan egongo da indarrean: 2012-2013, 2013-2014, 2014-2015 eta 2015-2016an.

Hirugarrena.- Adierazitako ikasturteetarako planifikatutako eskola-unitateen kopurua V.A eranskinean adierazitakoa izango da.

Laugarrena.- Administrazioak funts publikoak izendatu behar ditu itunpeko ikastetxeari eusteko, irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza-itunen Araudiari buruzkoaren 16. eta 19. arteko artikuluekin bat etorritz.

Bosgarrena.- Ikastetxearen titularrak derrigorrezko irakaskuntzak doan eman beharko ditu, irakaskuntza horiek emateagatik zuzeneko edo zeharkako inolako diru-ordainik hartu gabe, dagozkien ikasketa-programen eta -planen arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoan ikasketa-antolamenduari buruz indarrean dauden araei jarraiki.

Hala ere, ikastetxearen titularrak kasu bakoitzean baimenduko diren diru kantitateak jaso ditzake ikasleengandik finantzaketa osagarri gisa, itun berezi partzialaren erregimeneko irakaskuntzak –derrigorrezkoak ez direnak- emateagatik. Jasotako diru kantitatea ezin izango da izan osoko itunaren erregimenean legokiokeenaren eta Administrazioetik hartutakoaren arteko diferentzia baino handiagoa.

Seigarrena.- Ituna dela bide, ikasleak onartzeko arau hauek bete beharko ditu ikastetxearen titularrak: Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren II. tituluko 3. kapitulua eta martxoaren 4ko 35/2008 Dekretua (dekretu horren bidez arautzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketako herri-ikastetxeetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozedura); era berean, itun hau indarrean

dagoen bitartean ikasleak onartzeko prozedurari buruz ematen diren aginduak edo horiek ordeztzen dituzten arauak ere bete beharko ditu.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruz indarrean dagoen araudia bete beharko du ikastetxearen titularrak.

Zazpigarrena.- Itunpeko ikastetxearen titularrak obligazioa hartzen du Hezkuntzarako Eskubidea arautzeko duen uztailaren 3ko 81985 Lege Organikoaren 54. artikulua (Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak aldatu zuen lege hori) aipatzen dituen gobernu-organoak eratzeko eta mantentzeko, irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren, Hezkuntza-itunen Araudiari buruzkoaren 35. artikuluan ezarritako irizpideen arabera.

Eratu gabe dituzten ikastetxeetan, dagokion ikasturteko lehen hiruhilekoan eratuko dira organo horiek, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako aldian.

Zortzigarrena.- Itunpeko ikastetxearen titularrak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak plangintzan hurrengo lau ikasturteetarako onartzen dituen heziketa-zikloak soil-soilik eskainiko ditu.

Bederatzigarrena.- Behin betiko destinoa ikastetxean zuten irakasle publikoek zerbitzuak bertan ematen jarrai dezakete.

Hamargarrena.- Eskola Kontseilua eratu eta gero ikastetxean sortzen diren lanpostu hutsak betetzeko, Hezkuntzarako Eskubidea arautzeko 8/1985 Lege Organikoaren 60. artikuluan (Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak aldatu zuen lege hori) eta irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren, Hezkuntza-itunen Araudiari buruzkoaren 47. eta 56. artikuluetan ezarritakoa beteko da.

Hamaikagarrena.- Itundu beharreko ikasgela kopurua zehazteko, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, urtero argitaratu ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren agindu bat, egutegiak eta eskabide-inprimakiak zehazteko.

Eskabideak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak tramite horretarako jarri dituen eranskin- ereduetan egin behar dira.

Eskabideen baremazioa egingo duten balorazio-batzordeek ondorengo hauek hartuko dituzte kontuan: dokumentu honen V.A eranskinean adierazitako plangintza, eta 2012-2013, 2013-2014, 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetarako hezkuntza-itunak sinatzeko eta berritzeko dei egiten duen Aginduaren IV. eranskinean ageri diren ratioak eta ituntze-irizpideak.

Itundutako ikasgela kopuruak inola ere ez du gaindituko planifikatu den ikasgela kopurua, alegia, V.A eranskinean zehazten dena.

Hamabigarrena.- Eskabideak aztertutakoan eta batzordeek proposamenak egindakoan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak dagokion ikasturtean itundu beharreko ikasgelak ebatziko ditu agindu bidez. Agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da eta ikastetxe bakoitzean ikasturtean itundu beharreko gela kopurua jasoko du.

Hamahirugarrena.- Itun honen bidez, ikastetxearen titularrak jardunean eutsi behar dio hezkuntza-maila bakoitzean itundutako unitate kopuru berari. Halaber, eutsi egin beharko dio, gutxienez, eskola-unitate bakoitzeko une bakoitzean indarrean den batez besteko ikasle/irakasle erlazioari.

Baldin eta batez besteko ikasle/irakasle erlazioa edo jardunean dagoen unitate kopurua

gutxitzen bada, itundutako unitate kopurua ere gutxitu egingo da.

Aipatutako gorabehera horiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari jakinarazi behar dizkio ikastetxeko titularrak. Matrikulatutako ikasle kopurua egiaztatzen duen agiria ere urtero eman beharko dio.

Hamalauugarrena.- Itunpeko ikastetxeek lau hilero jasoko dute dirua, aldi hauetako bakoitzean: irail-abendua, urtarril-apirila eta maiatz-abuztua. Horretarako, urriaren 19ko 289/1993 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuen ordainketa eskuordetua arautzen duenak (uztailaren 27ko 395/1995 eta ekainaren 30eko 127/1998 Dekretuek aldatu zuten dekretu hori), ezarritakoari jarraituko zaio, ordainketa mota horrek eragina duen etapetan.

Diru kantitate horiek jasotzeko, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak beteta dituztela egiaztatu beharko dute ikastetxeek, Ogasun eta Finantza sailburuaren 1991ko urriaren 7ko Aginduaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren kontura diru-laguntzak eskuratu dituzten onuradunek zerga-betebeharrak bete dituztela egiaztatzeari buruzkoaren, edo hori ordezkatzeko duen araudiaren eta gizarte-segurantzaren inguruan indarrean dagoen legediaren arabera.

Laguntzak eskatzen dituzten ikastetxeek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzea laguntzak eskatzen dituzten ikastetxeen ziurtagirien bidez egingo da, eta horrela automatikoki egiaztatuko du organo kudeatzaileak, behar adina aldiz, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena, aplikatuta.

Hamabosgarrena.- Itunpeko ikastetxearen titularrak behar diren neurriak hartuko ditu irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren, Hezkuntza Itunen Araudia onartzen duenaren 38., 39. eta 40. artikuluek xedatzen dituzten betebeharrak betetzeko.

Hamaseigarrena.- Ikasturtea amaitu ondoren, beti ere azaroaren 30a baino lehen, Eskola Kontseiluak edo OOGak (Ordezkaritza Organo Gorenak) onetsitako ikastetxearen ekonomia-balantzea aurkeztu beharko du ikastetxearen titularrak, dokumentu honen V.B eranskinaren arabera aurkeztu ere. Gainera, ikastetxea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ikuskaritza-organoen, Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontuhartzaitza Nagusiaren edo sortuko direnen kontrolpean egongo da.

Hamazazpigarrena.- Ikastetxeak bere itunpeko izaerari buruz eman beharreko publizitatea, ikasleei kobratutako kuotei buruz indarrean dagoen legeria bete izana ikuskatzea eta funts publikoak itundutako helburuarekin erabiltzea indarrean den araudira egokituko dira.

Hamazortzigarrena.- Planifikatu diren eskola-unitateak aldatzea, 2012-2013, 2013-2014, 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetarako hezkuntza-itunak sinatzeko eta berritzeko dei egiten duen Aginduaren 9. artikuluan eta xedapen gehigarrian ezarri denaren arabera, elkarren arteko adostasunez egingo da, ikastetxeak edo Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak proposatuta. Horretarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak dagokion espedientea bideratuko du.

Hemeretzigarrena.- Itun hau berritzea eta aldatzea irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren, Hezkuntza-itunen Araudia onartzen duenaren VI. kapituluan xedatutakoaren arabera egingo da.

Hogeigarrena.- Itun hau amaitzeko arrazoiak irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren, Hezkuntza-itunen Araudia onartzen duenaren VII. kapituluan daude jasota.

Hogeita batgarrena.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak edo berak eskuordetzen duen organoak ebatziko ditu itunaren indarraldian sor daitezkeen gorabeherak.

Horrela jasota gera dadin, bi aldeek agiri honen bi ale izenpetu dituzte, klausulekin bat etorriz, ondoren adierazten den egunean eta tokian.

Vitoria-Gasteizen,(e)koaren(e)(a)n.

IKASTETXE PRIBATUAREN ALDETIK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA
IKERKETA SAILBURUA

Izpt.:

Izpt.:

Ahalmen notarialaren zk.:

2012ko maiatzaren 25a, ostirala

V.B ERANSKINA GASTUEN BALANTZE EKONOMIKOA

ITUNPEKO IKASTETXEA: _____ Kodea: _____

BALANTZE EKONOMIKOA. URTEA: _____

GASTUAK

| | | | |
|------------------------|---|-------|--|
| 1- | IRAKASKUNTZA GASTUAK | | <input style="width: 80%;" type="text"/> |
| 1.1- | LANGILE GASTUAK | | |
| 1.1.1- | Irakasleak | _____ | |
| 1.1.2- | Irakasle ez diren langileak (eskolazainak, admin.,) | _____ | |
| 1.1.3- | Langile teknikoak (logopeda, psikologoa eta abar) | _____ | |
| 1.1.4- | Beste langile batzuk | _____ | |
| 1.2- | IRAKASKUNTZA GASTU OROKORRAK | | |
| 1.2.1- | Mantentze- eta funtzionamendu-gastuak | _____ | |
| 1.2.2- | Beste gastu batzuk (finantzarioak, zergak, etab.) | _____ | |
| 1.3- | AMORTIZAZIOAK | _____ | |
| 2- | JARDUERA ETA ZERBITZU OSAGARRIEN GASTUAK | | <input style="width: 80%;" type="text"/> |
| 2.1- | Zerbitzu osagarriak (garraioa, jantokia, egoitza) | | |
| 2.1.1- | Langileak | _____ | |
| 2.1.2- | Gastu orokorrak | _____ | |
| 2.2- | Jarduera osagarriak | _____ | |
| 3- | BESTE GASTU BATZUK | | <input style="width: 80%;" type="text"/> |
| | _____ | _____ | |
| | _____ | _____ | |
| GASTUAK GUZTIRA | | | |

Hezkuntza Itunen Araudia onartu duen 298/1987 Dekretuaren arabera, _____(e)an (data) egindako bileran, ikastetxeko Eskola Kontseiluak goiko balantze ekonomikoa onartzea erabaki zuen, eta nik, kontseiluburu naizen aldetik, ziurtatu egiten dut.

_____ (e)n, _____ (e)ko _____ aren ____ (e)an

Izpt.: _____ NAN:
(Eskola Kontseiluko/OOGko burua)

Izpt.: _____ NAN:
(Eskola Kontseiluko/OOGko idazkaria)

2012ko maiatzaren 25a, ostirala

V.B ERANSKINA
DIRU SARREREN BALANTZE EKONOMIKOA

ITUNPEKO IKASTETXEA: _____ Kodea: _____

BALANTZE EKONOMIKOA. URTEA: _____

DIRU
SARRERAK

| | | | |
|--|---|-------|--|
| 1- | IRAKASKUNTZARAKO SARRERAK | | |
| 1.1- | HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA | | |
| 1.1.1- | Hezkuntza-itunak | _____ | |
| 1.1.2- | Ordainketa eskuordetua | _____ | |
| 1.1.3- | Kontratuak (erretiratu partzialak) | _____ | |
| 1.1.4- | Beste batzuk (zehaztu) | _____ | |
| | _____ | _____ | |
| | _____ | _____ | |
| | _____ | _____ | |
| 1.2- | JAURLARITZAKO BESTE SAIL BATZUK | _____ | |
| | _____ | _____ | |
| | _____ | _____ | |
| | _____ | _____ | |
| 1.3- | BESTE DIRU LAGUNTZA PUBLIKO BATZUK | _____ | |
| | _____ | _____ | |
| | _____ | _____ | |
| 1.4- | PUBLIKOAK EZ DIREN BESTELAKO EKARPENAK | _____ | |
| | _____ | _____ | |
| | _____ | _____ | |
| 2- | KUOTEN ONDORIOZKO SARRERAK | | |
| 2.1- | Irakaskuntza-kuotak | | |
| 2.1.1- | Erdi-mailako heziketa-zikloak | _____ | |
| 2.1.2- | Goi-mailako heziketa-zikloak | _____ | |
| 2.2- | Jarduera osagarriengatiko sarrerak | _____ | |
| 2.3- | Zerbitzu osagarriengatiko sarrerak | _____ | |
| 3- | BESTELAKO SARRERAK (zehaztu) | | |
| | _____ | _____ | |
| | _____ | _____ | |
| DIRU SARRERAK GUZTIRA | | | |

Hezkuntza Itunen Araudia onartu duen 298/1987 Dekretuaren arabera, _____(e)an (data) egindako bileran, ikastetxeko Eskola Kontseiluak goiko balantze ekonomikoa onartzea erabaki zuen, eta nik, kontseiluburu naizen aldetik, ziurtatu egiten dut.

_____ (e)n, _____ (e)ko _____ aren ___(e)an

Izpt.: _____ NAN:
(Eskola Kontseiluko/OOGko burua)

Izpt.: _____ NAN:
(Eskola Kontseiluko/OOGko idazkaria)